# DEBAKO UDALAREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA 2.008-2.011

**EGILEA: MURGIBE S.L.**

**BULTZATZAILEA:**

Debegesa
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea
Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba

**BABESLEA:**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**2.009ko urtarrila**

# AURKIBIDEA


| | Or. |
|---|---|
| 1.- Eremu teorikoa eta lege eremua. | 3 |
| 2.- Metodologia. | 6 |
| 3.- Ardatz estrategikoen justifikazioa, aukeraturiko arloak eta tokiko errealitatera egokitzea. | 8 |
| 4.- Ikusitako indarguneak eta hobetu beharreko arloak | 9 |
| 5.- Plana ezartzeko neurriak. | 12 |
| 5.1.- Berdintasunerako egiturak. | 12 |
| 5.2.- Plana kudeatzeko tresnak. | 12 |
| 6.- Arloak, helburuak eta ekintzak. | 14 |
| 7.- Kronograma | 26 |
| 8.- Ebaluazio-adierazleak | 29 |

## 1.- EREMU TEORIKOA ETA LEGE EREMUA.

Azken urteotan, lege eta arau juridiko ugari sortu da nazioarte, Europa, estatu eta toki mailan, eta horien helburua Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Eskubidea beren beregi onartzea da. Hortaz, Plan honek erakunde eta lege babes handia du.

Ondoren, genero-politiken gaineko zenbait lege eta teoria nabarmenduko dira:

- Apirilaren 2ko **7/1985 Legea,** Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua).
- Otsailaren 18ko **4/2005 Legea,** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako **IV. Plana**.
- Martxoaren 22ko **4/2007 Lege Organikoa**, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa.
- Toki Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **Europako Karta**.

### Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua)

Legearen 28. artikuluan esaten denez, udalerriek beste herri administrazio batzuen jarduera osagarriak egin ditzakete eta, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumenaren babesari buruzkoak. Testuinguru horretan, argia da tokiko administrazioaren protagonismoa,, eta esku hartzeko tokia uzten da araudian, udalerriei jarduerak bultzatzeko modua emateko, baita herritarrek generoaren arloan dituzten beharrak eta igurikapenak betetzen laguntzeko beharrezko gizarte zerbitzuen eskaintza ere. Horrek ez dakar berekin, inola ere, beste herri administrazio batzuen eskumenak galtzea edo oztopatzea. [1]

### Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea

Lege honen eremuan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan administrazio maila bakoitzari dagozkion funtzioak zehazten dira argi eta garbi, betiere Autonomia Estatutuko 10.39. artikuluaren, Lurralde Historikoen Legearen 6 eta 7 c) 2 artikuluen eta estatutuko arauen (9.2. art.) eta EBkoen (Europako Batasunaren Itunaren 3.02. art.) ondoriozko eskumenak oinarri hartuta. Horiek guztiek behartu egiten dituzte herri botereak emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak sustatzera eta horretarako oztopoak desagerraraztera emakumeen eta gizonen berdintasuna benetakoa izan dadin. Gainera, berdintasun hori herri botereen politika eta ekintza guztietan sustatu behar dute.

Eginkizun hauek esleitu dizkio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak herri administrazioari:

- ✓ Egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea genero-ikuspegia ezartzeko.
- ✓ Ekintza positiboko neurriak betearaztea.
- ✓ Gobernuaren plangintza orokorraren eremuko programazioa eta foru aldundien programazioa.
- ✓ Estatistikak egokitzea eta eguneratuta izatea, emakumeen eta gizonen desberdintasun egoera ezagutzeko, baita berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriak ezagutzeko ere.
- ✓ Emakumeek eta gizonek toki mailan duten egoerari buruzko azterketak eta ikerketak egitea.

---

1 *"Documento Marco para la Gestión de las Políticas Locales de Igualdad". Espainiako Udalerrien Probintzien Federazioa, Berdintasun Arloa, Madril, 2006*

- ✓ Emakumeen eta gizonen desberdintasunaz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriez jabearazteko jarduerak egitea.
- ✓ Tokiko araudia emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren arabera aplikatzearen inguruko jarraipena egitea.
- ✓ Herritarrei eta bereziki emakumeei informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko baliabideei eta programei buruz eta diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko gizarte eskubideak eskuratzea bermatzeko programei edo zerbitzuei buruz.
- ✓ Programak edo zerbitzuak ematea, diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko gizarte eskubideak eskuratzea bermatzeko; izan ere, zerbitzuen izaera dela-eta, udalekoak izan behar dute.
- ✓ Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko gizarte zerbitzuak eta baliabideak ezartzea; izan ere, zerbitzuen izaera dela-eta, udalekoak izan behar dute.
- ✓ Erlazioak eta parte hartzeko eta lankidetzarako bideak ezartzea erakunde publikoekin eta pribatuekin; horien helburuen edo eginkizunen arabera, emakumeen eta gizonen berdintasuna toki mailan lortzeko lagungarriak izango dira.
- ✓ Toki mailan gerta daitezkeen sexuaren ziozko diskriminazioak antzematea eta horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.
- ✓ Haien eskumenen eremuan esleitu dakiekeen beste edozein funtzio.

### Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak frogatzen duenez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea oinarrizko aurrerapena da berdintasunerako politiketan, zeren arauetan garatzen baitu berdintasunaren printzipioa, printzipio juridiko unibertsala, bai traturako berdintasunerako, bai aukera-berdintasunerako, euskal administrazioaren jardueran eta, hala denean, erakunde pribatuen jardueran.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren diseinuari eta egiturari buruzko oinarrizko lau funtzio ezarri dira Legean:

- Plana burutzeko botere publikoen jarduketa eraendu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzeko funtzioa, (Legearen hasierako titulua).
- Neurri-multzo bat arautzea genero-ikuspegia EAEko herri administrazioen eta botereen jardueran txertatzeko.
- Berdintasuna esku hartzeko arloetan sustatzeko neurriak bideratzeko funtzioa (III. Titulua).
- Oinarrizko edukiak zehazteko funtzioa.

### Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa

2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaraturiko legearen abiapuntua, alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa da: *"Giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da".*

*Bestalde, Legeak beste premisa bat ere badu oinarri gisa: berdintasun formala legearen aurrean erabat onartzea funtsezkoa izatea, araudien bidez hobetu beharrekoa, "sexuaren ziozko zuzeneko edo zeharkako*

*ezkutuko diskriminazio modu guztien kontra egiteko eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatzeko, berdintasuna lortzea galarazten duten gizarte oztopoak eta estereotipoak desagerraraziz".*

Besteak beste, funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: "Ekintza positiboa", "Ordezkaritza orekatua" eta "Zeharkakotasuna".

Hauxe azaltzen da 21.1. artikuluan: *"Toki erakundeek berdintasunaren eskubidea ezarriko dute haien eskumenak erabiltzean eta, horretarako, lagundu egingo diete gainerako herri administrazioei".* Hala, toki administrazioen euren eskumenak bete behar direla ezarri da 3/2007 Legean, oro har Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eratxikiak eta, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien kasuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztuak.

### Tokiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna

Tokiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna, Europako Udalerrien eta Erregioen Kontseiluak bultzatua emakumeen eta gizonen berdintasunerako erkidego-ekintzaren 5. programaren barruan, "Europako tokiko eta erregioko gobernuentzat da, eta gutuna sinatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari buruzko jendaurreko jarrera agerraraztea eta Kartan zehazturiko konpromisoak haien lurraldean aplikatzea eskatzen die".

EUDEL (EAEko Udalerrien Elkartea) da proiektuaren bazkideetako bat, eta gero eta euskal udal gehiagok sinatu dute gutuna. Gutun horrekin bat egin duten udalek hitzartu egin dute bi urteren buruan berdintasunerako ekintza-plan bat egitea eta abiaraztea, guztiek parte hartuta eginikoa eta ebaluazio-irizpideei lotuta, baita plan hori abiarazteko nahikoa baliabide izatea ere.

*Europako Gutunak hauxe aintzatesten die tokiko eta erregioko agintariei: "Esku hartzeko mailarik onenak izatea desberdintasunen iraunkortasunari eta berragerpenei aurre egiteko eta benetako berdintasunezko gizartea bultzatzeko".*

## 2.- METODOLOGIA.

DEBEGESA Toki Garapenerako Agentziak bultzaturiko prozesu bat izan da Elgoibarko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plan hau egiteko erabilitako metodologia eta, alde batetik, udal arlo guztietako arduradun politikoen eta teknikoen inplikazioa ekarri du, eta bestetik, herritarrak ordezkatzen dituzten tokiko erakunde guztien partaidetza. Plana, era berean, jendaurrean jarri da eta EMAKUNDEra bidali da, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoaren araberako txosten bat egin dezan.

Ildo horretan, hauxe da prozesua laburbiltzen duen eskema:




1.PROIEKTUA ABIARAZTEA.
2.INFORMAZIOA BILTZEA ITURRI MOTEN ARABERA
3.INFORMAZIOA BILTZEKO EGIN BEHARREKO MATERIALA
4.INFORMAZIOA AZTERTZEA ETA BALIOZKOTZEA
5.PLANEN LEHEN ZIRRIBORROA EGITEA
6.BERDINTASUN-PLANAK AZKENEAN EGITEA
7.AURKEZPEN-SAIOAK

Aukera-berdintasunaren arloko udal diagnostikoa eginda, errazagoa izan da indarguneak eta hobetu beharreko arloak ikustea. Bi alderdi horiei jarraituz, zenbait helburu zehatz ezarri dira, zenbait arlo hobetzeko ekintza zehatzak burutzeko edo indarguneak bultzatzen edo lantzen jarraitzeko.

Bestalde, Berdintasunerako Plana baliozkotzeko, lan-mahai bat sortu da eta politikariek eta teknikariek ez ezik, herritarren ordezkariak diren erakundeek ere hartu dute parte.

Hauexek izan dira mahaiaren helburuak:

-Talde eragileak diagnostikoaren emaitza nagusien berri ematea udaleko pertsonal arduradunari eta udalerriko erakundeei.

-Planerako identifikaturiko helburuei buruzko informazioa ematea.

-Identifikaturiko helburuen inguruan Udalek eta udal erakundeek batera egin beharreko ekintzak lehenestea.

Lan-mahaian, lehenik eta behin, prozesu osoan erabilitako metodologia aurkeztu zen, eta bigarrenik, identifikaturiko indarguneak eta ahulguneak aurkeztu dira etorkizuneko Planaren arloen arabera, baita ezarritako helburuak ere.

## 3.- AUKERATURIKO ARLOEN JUSTIFIKAZIOA ETA TOKIKO ERREALITATERA EGOKITZEA.

Esku hartzeko eremu funtzionalak dira, eta horien bidez egingo da lan berdintasuna lortzeko. Hauexek dira Berdintasunerako I. Udal Plan hau zehazteko ezarritako eremuak:

**1. ARLOA: UDALA**
**2. ARLOA: KULTURA ETA KIROLA**
**3. ARLOA: HEZKUNTZA**
**4. ARLOA: LANA**
**5. ARLOA: GIZARTERATZEA ETA OSASUNA**
**6. ARLOA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA**

Elgoibarko Berdintasunerako I. Planaren esku hartzeko arlo hauetan kokatuko lirateke egungo udal arloak:

| PLANAREN ARLOAK<br>UDALAREN ARLOAK ⇓ | Udala | Kultura eta Kirola | Hirigintza eta Ingurumena | Hezk. | Lana | Gizarteratzea eta Osasuna |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kontu, Ogasun eta Ekonomia Arlo Berezia | | | | | | |
| Barne eta Pertsonalekoa | | | | | | |
| Hirigintza, Ura, Argindarra, Lanak eta Ingurumena | | | | | | |
| Gizarte Prestazioak eta Osasuna | | | | | | |
| Euskara | | | | | | |
| Kultura, irakaskuntza eta jaiak | | | | | | |
| Gazteria | | | | | | |

Halaber, garrantzizkoa da gehitzea sailen erantzukizunak ez direla nahitaez esku hartzeko arlo jakin batean agortzen, zeren zenbait sailen (edo udal arloren) eskumen-eremua esku hartzeko arlo bat baino gehiagotara heda baitaiteke. Hala eta guztiz ere, I. Plan honen Esku Hartzeko Arloen egituraketa lagungarria da arlo bakoitzean zer egin behar den jakiteko ikuspegi osoa eta argia izateko. Hortaz, aurrerago aurkeztuko diren helburuak eta ekintzak horietako bakoitzaren diagnostikoak ikusitako beharretan oinarritzen dira.

## 4.- IKUSITAKO INDARGUNEAK ETA HOBETU BEHARREKO ARLOAK

Aurretik eginiko Diagnostikoan ikusitako indarguneak eta hobetu beharreko arloak oinarriak izan dira Elgoibarko Berdintasunerako I. Planaren helburuak ezartzeko. Honako hauek dira:

### Udalaren Arloa

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| Emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko barne diagnostikoa 2006az gero | Genero ikuspegia txertatzearen inguruko ezagutza eskasa da. |
| Berdintasun plana bultzatzeko laguntza teknikoaren existentzia | Udaleko berdintasun planaren ezagupen maila udal arloetan baxua da.<br>Aukera berdintasunaren inguruko gutxi gora beherako ezagutza eta ez oso zehatza. |
| Pertsonal tekniko, administrari eta langilegoak berdintasunean formakuntza jaso dute. Gizarte Zerbitzuetan jasotako formakuntza berdintasun politiken, ekintza positiboen eta genero mainstreaming-aren oinarrizko kontzeptuen ingurukoa izan da. | Ekintza edota arau baten diseinuaren aurretik ez da egiten emakumeen beharrizanen diagnostikorik, ezta eragin negatiboa duten ekintzen edo baldintzen inguruan aldaketa edo ezabapenik<br><br>Udal arlo gehienetan ez da ebaluatzen jarduera edo arau batek emakumeen egoeran eta baldintzetan duen eragina<br><br>Berdintasunerako egituraren finkatze eskasa. |

### Kultura eta Kirolak Arloa

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| Udal Liburutegiak emakumeen inguruko atal bat du non hezkidetza, ipuin ez sexistak, sexismoa bezalako gaiak biltzen diren. | Ekintza kulturalak egiteko instalakuntzen beharrizan handia aipatzen da, adibidez, kultur etxe egoki batena.<br><br>Ez da ezagutzen kirol instalazioetako partehartze erreala sexuaren arabera. |
| Udalerrian 16 kultur talde daude baina buru direnen sexua ez da ezagutzen. | Tradizioz gizonezkoenak diren kiroletan emakumeen partaidetza baxua da. |

Ekintza kultural gehiago eskatzen dira: hitzaldia, ikastaroak, etab. Eta berdintasuna bultzatzen dutenak sustatzearen beharra ere, emakumeen presentzia ziurtatuz (ekintza kulturaletan, kirol ekintzetan, etab.). Gainera burutzen diren ekintzen ordutegiak emakumeen beharrizanetara egokitu beharko lirateke.

## Hezkuntza Arloa

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| Ikastetxeetatik genero berdintasuna bultzatzeko programak egiten dira. Debako Eskola Publikoan (dagoen zentru bakarra) Emakunderen Nahiko eta Osasunkume programak lantzen dira eta positibotzat hartzen dira. | Daukagun informazioaren arabera, Ikastetxeetan hezkidetza lantzeko pertsona arduradunik ez dago.<br>Ikastetxeetako ikaslegoaren gurasoak ez daude hezkidetzan sentsibilizaturik.<br><br>Ez dago lanbide heziketaren inguruko daturik udalerrian. |

## Lan Arloa

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| Debegesaren lan zerbitzua dago honako zerbitzuak bultzatzen dituena: lan orientazioa, lan bitartekariza, lanbide heziketa, enplegu zentrua eta ikaskuntzarako formakuntza.<br>Equal Kideitu programa europearrean partaidetza hurrengo ekintzekin:<br>- Generoaren ingurko Barne kontu ikuskapenaren garapena<br>– Agentziako pertsonalarentzako formakuntza<br>Genero mainstreaming-aren ezartzea autoenplegurako aholkularitza zerbitzuaren jarduketan. | Industri sektorean emakumeen presentzia baxua. Gizonezkoek aldiz, presentzia handia dute industria sektorean.<br><br>Ez dago daturik udalerrian gizarte antolakuntza modelo berri bat bultzatzeko dauden ekintza espezifikoen inguruan.<br>Emakumeek zailtasunak dituzte bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egiteko orduan.<br>Ez dago daturik udalerrian bateragarritasunerako dauden zerbitzuek biztanlegoaren beharrizanak betetzeko nahikoak diren edo ez baloratzeko.<br>Udalerriko enpresek ez dituzte emakumeentzako azpiegitura egokiak (aldagelak) |

## Gizarteratzea eta Osasun Arloak

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|

| | |
|---|---|
| Debabarrenean Genero-indarkeriari buruzko diagnostikoa | Ez dago emakumeen aurkako indareriaren inguruko udal protokolorik. |
| Debabarreneko etorkinei buruzko azterketa egin da, DEBEGESAk bultzatua. | Osasun arloan, ez dago sexuz bereizitako daturik |
| Osasun zentruak zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu: administrari arreta, medikuntza orokorra, pediatria, erizaintza, emagina eta ginekologia. | Ez dago daturik Debako emakumeengan eragin berezia duten gaixotasunen inguruan, berdintasuneko politika publikoentzako lehentasunezkoak direnak.<br><br>Ez dago daturik Debako emakumeen artean nahi ez diren haurdunaldien inguruan, bereziki nerabe eta gazteenak. |

## Hirigintza eta Ingurumen Arloak

| INDARGUNEAK | HOBETU BEHARREKO ARLOAK |
|---|---|
| Landa Garapen Elkarteak aurten ikerkuntza bat egingo du nagusien zaintzaileen egoera ezagutzeko helburuarekin, kontutan edukita, zaintzaile gehiengoak emakumeak izaten direla. | Herriko kale batzuk toki helezinak dira.<br><br>Udalerrian segurtasunik gabeko zonaldeak identifikatzen dira. |

# 5.- PLANA EZARTZEKO NEURRIAK.

## 5.1.- Berdintasunerako egiturak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikuluan ezarri denez, foru eta tokiko administrazioek, beren burua antolatzeko eskumenen eremuan, egiturak egokitu behar dituzte halako moldez non horietako bakoitzean gutxienez emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko, aholkuak emateko, programatzeko eta ebaluatzeko ardura duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat egongo baita erakunde horiek duten jarduteko lurralde-eremuan.

2006. urtean, Debabarrena eskualdean Emakumeen eta Gizonen BENETAKO berdintasuna lortzeko neurriak diseinatzeko PROZESUAri ekin zitzaion, eta Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2007-2008ko I. Barne-plana onetsi zuen. Deba Barreneko Mankomunitateko beste lau udalerrirekin (Mutriku, Soraluze, Mallabia eta Elgoibar udalerriak) eta DEBEGESArekin (Eskualdearen tokiko garapenerako agentzia) batera egin zen plana.

Hori abiapuntua izanik, berdintasuna bultzatzeko egitura bat sortu zen, Gizarte Ongizateko zinegotziak, gizarte langileak, DEBEGESAko teknikariak eta generoan espezializaturiko laguntza teknikoak osatuta. 2008az gero, berdintasunerako teknikari bat du udalean bertan, astean egun batean, guztira 5 orduetan.

Ez dago udal barruko koordinaziorako egiturarik, udal arlo guztietako pertsonal politikoak edota teknikoak osatua, berdintasunarekin lotutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Beraz, koordinazio prozedurak martxan ipiniko dira.

Planaren indarraldian emakumeek parte hartzeko organo bat jarriko da martxan.

## 5.2.- Plana kudeatzeko tresnak.

### Programazio, jarraipen eta ebaluaziorako tresnak

I. Plan hau programatzeko, urteko programa operatiboak egingo dira aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan. Honako hauek bilduko dituzte urteko plan operatiboek:

Arlo edo erakunde arduradun bakoitzaren laneko planak jardueraka: abiapuntuko egoera, espero diren emaitzak, egin beharreko jarduerak, inplikaturiko pertsonak eta erakundeak, egutegia, aurrekontua eta adierazleak.

Aurrekontu orokor bat programa operatibo bakoitzerako.

Berdintasun Planen jarraipena horien kudeaketaren zati garrantzitsua da. Debako Udalak, DEBEGESArekin batera, planaren jarraipena egingo du, honako hauek bilduko dituzten bitarteko txostenen bidez: aurreikusitako lana, eginiko lana, zailtasunak, aurrerapenak... eta arlo edo erakunde arduradun bakoitzak urteko ekitaldiaren erdialde aldera egingo dituenak.

2008. urterako, 11.200 €-ko aurrekontua dago Berdintasunerako Plana burutzeko eta aurrekontua handitzeko posibilitateak daude. Plan honen indarraldiko gainerako urteetarako, aurreko urteko azken hileetan ezarriko da aurrekontua.

Jarraian, arlo bakoitzeko lan-planetan erabili beharreko ekintzak planifikatzeko fitxaren eredu bat agertzen da.

## EKINTZA-FITXAREN EREDUA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARLOA:** | | | |
| | | | |
| **HELBURUA:** | | | |
| | | | |
| **EKINTZA:** | | | |
| | | | |
| **JARDUERA:** | | | |
| | | | |
| Jardueraren deskribapena | | | |
| Justifikazioa | | | |
| Pertsona edota erakunde hartzaileak | | | |
| BURUTZAPENAREN ARDURADUNAK | | | |
| Arlo arduradunak | Pertsona arduradunak | Arlo laguntzaileak | Pertsona laguntzaileak |
| | | | |
| Burutzapen-aldia | | Aurrekontua | |
| | | Jatorria | Kantitatea |
| | | | |
| **ADIERAZLEAK:** | | | |
| | | | |
| **ESPERO DIREN EMAITZAK:** | | | |
| | | | |
| **KOMENTARIOAK:** | | | |
| | | | |

## 6.- ARLOAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK.

Atal honetan, 2008-2011eko aldian egin beharreko ekintzak eta helburuak garatuko dira, Plan honen arloen arabera.

Aldatu nahi den gizarte errealitatea zehazten dute **helburuek,** eta egin beharrekoa eta zehaztu beharrekoa lehenesteko eginkizuna betetzen dute proposaturiko adierazleen eta ondoko ebaluazioen bidez, baita lorturiko emaitzen norainokoa ere. Ezarritako arlo guztietan ezarriko dira helburuak, eta arlo bakoitzean buruturiko **EKINTZAK** sartuko dira, EAEko Berdintasunerako IV. Planak dakartzan ekintza-taldeetan bilduak: ezagutza sortzea, jabearaztea, informazioa eta dibulgazioa, trebakuntza, baliabideak eta zerbitzuak sortzea egokitzea,

arauak sortzea eta egokitzea eta horien jarraipena egiteko mekanismoak egokitzea. Abiarazi beharreko **estrategiei** dagokie planteatzen diren ekintzen deskribapena.

# 1. Arloa: Udala

## HELBURUAK ETA EKINTZAK

**1.1. helburua: Kargu politikoek eta teknikoek udalaren politikan genero-ikuspegia ezartzeko konpromisoa eta etengabeko jarduna sortzea.**

**EKINTZAK**

1.1.1.Urteko udal aurrekontuan berariazko partida bat sortzea berdintasunerako planaren ondoriozko ekintzak abiarazteko.

1.1.2.Planaren edukiak ezagutaraztea Udalaren beraren barne-mailan eta Udalaren zerbitzuetan eta partaidetza aktiborako mekanismo bat ezartzea.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; Alkatetza; Ogasuna; Gizarte Ongizatea

**1.2. helburua: Udalaren langile eta kargu politiko guztiek beren gain hartzea Udalaren berdintasunerako I. Barne-planaren edukien erantzukizunak (arloak, helburuak eta ekintzak).**

**EKINTZAK**

1.2.1. Bilerak egitea arloka kargu politikoekin eta I. Planaren ekintzen pertsonal tekniko arduradunarekin.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; Arlo guztiak

**1.3. helburua: Udalaren langile guztiak jabearaztea genero-berdintasuna eremu guztietan onartu beharraz**

**EKINTZAK**

1.3.1. Urtero emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko bi saio sortzea eta ematea udal arloen, funtzioen edo lanpostuen beharren neurrietarako.

1.3.2. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari eta arlo bakoitzarekin lotutako politika publikoei buruzko jardunaldietara eta mintegietara joatera bultzatzea pertsonal politikoa eta teknikoa.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; Arlo guztiak

**1.4. helburua: Emakumeen eta gizonen berdintasunezko tratua ezartzea udaleko pertsonalak eta Udalak eginiko azpikontratek sortutako dokumentuetako hizkeran eta irudietan.**

**EKINTZAK**

1.4.1. Udalaren hizkera eta irudiaren erabileraren gaineko gomendioei buruzko Alkatetza Dekretu bat onestea Udalaren Antolamenduari buruzko Arautegian sartzeko.

1.4.2. Udalaren pertsonalarentzako berdintasunezko hizkeraren eta irudien erabilerari buruzko Gomendioen Eskuliburua egitea eta argitaratzea.

1.4.3. Udaleko langileek tresnak eta laguntza teknikoa ematea Udalak sortzen dituen administrazioko dokumentuetako (memoriak, aktak, txostenak, etab.), argitalpenetako eta kanpainetako irudien eta hizkeraren erabilera berrikusteko eta, hala denean, egokitzeko genero-ikuspegitik.

1.4.4. Azpikontratatuturiko obraren edo zerbitzuaren ondoriozko dokumentu idatzi eta ikonografiko guztietako hizkeraren eta irudien berdintasunezko tratua egiteko konpromisoa baldintza teknikoen eta administratiboen orrietan ezarrita duten enpresen kontratazioa lehenestea.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; Alkatetza; Euskara; Erosketak eta azpikontratazioa

### 1.5. helburua: Emakume langileen berariazko beharrak ezagutzea lanean egun duten posizioa hobetzeko

**EKINTZAK**

1.5.1. Emakume langileen eskariak ezagutzeko galdetegi bat egitea, lanean egun duten posizioa hobetze aldera.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

Alkatetza; DEBEGESA

### 1.6. helburua: Genero-ikuspegia udaleko arlo guztietan ezartzeko bidean aurrera egitea.

**EKINTZAK**

1.6.1. Udaleko pertsonalaren partaidetza duten udal estatistiketan generoa aztertzeko gakoei buruzko gida bat egitea.

1.6.2. Herritarren Arretarako Zerbitzuan genero-ikuspegia sartzeko prozesuan aurrera egitea zerbitzu hori planifikatzean, abiaraztean eta ebaluatzean, betiere beste zerbitzu batzuetan heda daitezkeen estrategiak eta tresnak garatuz.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; HAZ; arlo guztiak

### 1.7. helburua: Berdintasunezko udal gobernuaren eraketa sustatzea.

**EKINTZAK**

1.7.1. Emakumeek politikan duten partaidetzari buruzko jardunaldia antolatzea.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; Gizarte Ongizatea; arlo guztiak

### 1.8. helburua: Debako emakumeak eta gizonak genero-berdintasunaz jabearaztea

**EKINTZAK**

1.8.1. Emakumeentzat funtsezkoak diren egunak ospatzeaz jabearazteko jarduerak antolatzea hala nola martxoak 8 (Emakumearen Nazioarteko Eguna), azaroak 25 (Emakumearen kontrako Indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna), etab.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; Alkatetza; Kultura

**1.9. helburua: Gaitasun pertsonalak garatzea, emakumeak beren autonomia ekonomikoaz eta erabakiak hartzeko esku hartu beharraz jabearazteko.**

**EKINTZAK**

1.9.1. Lidergoari, negoziazioari, gatazkak konpontzeari eta abarri buruzko ikastaroak, jardunaldiak, etab. daudela jakinaraztea langileei eta horietan parte hartzea bultzatzea.

1.9.2. Jabetze-ikasgelan parte-hartzea Debabarreneko eskualdean

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; Alkatetza; Arlo guztiak

**1.10. helburua: Berdintasunaren gaia lantzen duten instantzietan parte hartzea, bertan parte hartzen duten udaleko emakume langileen jabetzea kudeatzeko.**

**EKINTZAK**

1.10.1. Parte-hartze aktiboa izatea Berdinsarean; horretarako, sarean sartzeko gestio guztiak egingo dira eta sare horrek antolaturiko lan-taldeetara eta bileretara joango da.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA, Idazkaritza

**1.11. helburua: Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua erraztea lan-taldeetan, genero-mainstreaming-a ezartzeko sortuko diren udal tresnetan.**

**EKINTZAK**

1.11.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza sustatzea Udalean sortuko diren lan-talde guztietan.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

Alkatetza, DEBEGESA

**1.12. helburua: Pertsonaleko administrazioak eta pertsonaleko batzak beste udal batzuetan edo herri administrazio batzuetan bateratzearen arloan abiarazitako bateratze-neurriekin eta jardunekin bat egiten duten pertsonen datuen ezagutza sustatzea.**

**EKINTZAK**

1.12.1. Urteko txosten bat egitea Debabarreneko udaletan bateratze-neurriekin bat egiten duten gizonen eta emakumeen datuekin, Aldundiaren, EAEren, etab. beste estuku batzuen datuak.

1.12.2. Beste udal edo herri administrazio batzuetan bateratzearen arloan abiarazitako jardun onei buruzko informazioa ematea.

1.12.3. Beste udal edo herri administrazio batzuetan bateratzearen arloan abiarazitako beste jardun onei buruzko jardunaldi bat antolatzea.

1.12.4. Udaleko gizon langileek ezarritako bateratze-neurriekin bat egitea sustatzea.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; arlo guztiak

**1.13. helburua: Sexu-jazarpena prebenitzea lanean**

**EKINTZAK**

1.13.1. Prebentziorako eta jarduteko protokoloak ezartzea laneko sexu-jazarpenaren aurrean, Udalhitz Hitzarmenaren eremuan.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

Alkatetza; arlo guztiak

**1.14. helburua: Min fisikoa, sexuala edo psikologikoa izateko arriskuan dauden emakume langileentzako segurtasun neurriak ezartzea.**

**EKINTZAK**

1.14.1. Gizarte langileek ikusitako arriskuak ezagutzea

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

DEBEGESA; Gizarte zerbitzuak

# 2. Arloa: Kultura eta Kirola

## HELBURUAK ETA EKINTZAK

**2.1. helburua: Kirolaren eskaintza eta praktika dibertsifikatzea eta emakumeei tradizionalki gizonezkoen kirolak egiteko eta gizonei tradizionalki emakumezkoen kirolak egiteko posibilitateak ematea.**

**EKINTZAK:**

2.1.1. Eskola kirolaren bereizketan eragina duten genero-faktoreei buruzko ikerketak egitea.

2.1.2. Federaturiko kirolaren bereizketan eragina duten genero-faktoreei buruzko ikerketak egitea.

2.1.3. Klubetako zuzendariak generoaren arloan gaitzea.

2.1.4. Baliabideak eta diru-laguntzak edo bestelako laguntzak ematea helburu hori lortzeko programak edo jarduerak dituzten kirol elkarteei eta taldeei.

2.1.5. Ikastetxeei aholkuak eta laguntza emateari eustea genero-ikuspegia eta hezkidetza sartzeko kirol programetan.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

Gazteria; Kultura; Kirolak; Euskera; DEBEGESA

**2.2. helburua: Kirola egiten duten emakumeen portzentaia eta haien interesen araberako kirola aukeratzeko posibilitateak handitzea.**

**EKINTZAK:**

2.2.1. Aukera-berdintasunarekin lotutako irizpideak ezartzea udalerriko kirol ekarte eta taldeentzako diru-laguntzen deialdietan.

2.2.2. Emakumeek kirolaren arloan dituzten interesei, beharrei eta igurikapenei buruzko ikerketak egitea.

2.2.3. Emakume gutxi dauden kiroletarako ikastaro monografikoak garatzea.

2.2.4. Adin guztietako emakumeek kirola egiteko sustapenaz jabearaztea eta informazioa ematea.

2.2.5. Kirol eskaintza egokitzeari eustea, emakumeek beharren azterketetan adierazitako eskariei erantzuna emateko.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

Gazteria; Kultura, Turismoa eta Jaiak; Kirol Patronatua; DEBEGESA

**2.3. helburua: Emakumeek hedabideetan duten presentzia handitzea, kultur eta kirol jardueretan duten presentzia ikusarazteko berdintasun baldintzetan, baita emakumeak jabearaztea erraztea ere.**

**EKINTZAK:**

2.3.1. Kultura eta udal kirolen arloek garaturiko programen eta jardueren informazioaren tratamendua aztertzea genero-ikuspegitik.

2.3.2. Kulturaren eta kirolaren arloan adituak diren udalerriko emakumeen zerrenda bat egitearekin jarraitzea.

2.3.3. Emakumeek eginiko kultur eta kirol jarduerak eta berdintasuna sustatzen duten jarduerak ezagutaraztea.

2.3.4. Emakumeek gizartean eta politikan duten partaidetzari buruzko azterketa bultzatzea, elkarteetan eta erakunde politikoetan eta sindikaletan osotasunean duten presentzia kontuan izanik.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

Gazteria; Kirola; Kultura; DEBEGESA

**2.4. helburua: Udalerriko elkarteek kultur, kirol eta aisialdiko jarduerak planifikatzea eta burutzea genero-ikuspegitik.**

**EKINTZAK:**

2.4.1. Laguntza teknikoa eta, diru-laguntza ematea genero-ikuspegia haien egituretan eta lan-eremuen garapenean txertatzeko prozesuan dauden erakundeei.

2.4.2. Azpikontratatuturiko enpresei eta udalerrian kulturaren eta kirolaren arloetan lan egiten duten erakundeei trebakuntza eta laguntza teknikoa genero-ikuspegia ikuspegitik.

2.4.3. Herritarrei ezagutaraztea kirol eta kirol arloak berdintasunerako tokiko planaren garapenean bururiko politikak eta lorturiko emaitzak.

2.4.4. Udalerriko kultur elkarteek berdintasuna sustatzeko arte eta kultur lehiaketak egitea.

2.4.5. Kultur eta kirol elkarteek hizkeraren eta irudien erabilera ez sexista sustatzea.

2.4.6. Trebakuntza eta orientazioa ematea genero-ikuspegia erakundeetan eta oro har elkarteetan sartzea sustatzeko.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

Gazteria; Kirolak; Kultura; DEBEGESA

# 3. Arloa: Hezkuntza

## HELBURUAK ETA EKINTZAK

**3.1. helburua: Ikastetxeak jabearaztea hezkidetza haien programetan ezartzeko Berritzegunaren bidez eta ezarpen hori sustatzea.**

**EKINTZAK:**

3.1.1. Hezkuntzako udal arlo edota sailetako pertsonal teknikoa trebatzea (eremu formala edo ez formala) hezkidetza eta genero-ikuspegia ezartzeko tresnak eskuratzearen inguruan.

3.1.2. Ikastetxeetan eta hezitzaile eta gurasoen elkarteen artean hezkidetzaren inguruko errealitatea eta beharrak zehazteko azterketak egitea.

3.1.3. Hezkidetzari buruzko trebakuntza eta aholkuak ematea haur hezkuntzako ikastetxeetako, ludoteketako, "gazte taldeetako", udal euskaltegietako, aisialdi hezkuntzako eta hezkidetzako, etab. hezitzaileei eta zuzendaritzako taldekoei.

3.1.4. Hezkidetzako esperientziak trukatzeko guneak sortzea ikastetxeetan eta hezkuntzako guneetan.

3.1.5. Trebakuntza/hezkuntzako programak eta hezkuntza programa osagarriak diseinatzea haur eskoletan, aisialdiko eta hezkuntzako beste gune batzuetan genero-ikuspegitik, hezkidetza eta kulturen arteko ikuspegia txertatuz.

3.1.6. Hezkidetzaren arloko aholkularia sortzea proposatzea, hezkuntzako udal arloei eta sailei atxikia.

3.1.7. Programak diseinatzen eta kudeatzen dituzten erakundeekin hezkidetzako jardueren garapena sustatzea.

3.1.8. Hizkera eta irudien erabilera ez sexistaren erabilera sustatzea.

**ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK**

Gizarte Zerbitzuak; Kultura; Gazteria; Kirola; Euskara; DEBEGESA

**3.2. helburua: Erantzukidetasuna handitzea etxeko lanean eta neska-mutilak zaintzeko lanean.**

**EKINTZAK:**

3.2.1. Gurasoak, irakasleak eta begiraleak erantzukidetasunaren arloan informatzeko edota jabearazteko programak egitea.

3.2.2. "Erakuntzukidetasunaren astea" egitea udalerrian.

